

LABORATEGIETAN HONDAKINAK MINIMIZATZEKO IRIZPIDEAK

- ✓ Substantzia arriskutsuak hain arriskutsuak ez diren edo arriskurik ez duten beste substantzia batzuekin ordezteak eta erabilitako produktuen aniztasuna murrizteak merkatu egiten ditu erosteko eta mantentzeko kostuak, gehitu egiten ditu berrerabiltzeko eta birziklatzeko aukerak eta murriztu egiten du kudeatu beharreko hondakin arriskutsuen kantitatea.
- ✓ Ez erosi produktu kimiko gehiegi, horrela erosten diren substantzietako asko iraungitzea eta, azkenean, hondakin gisa kudeatzea saihestuko da. Erosi egin beharreko jarduerarako behar-beharrezkoa dena eta erabili lehenik produkturik zaharrenak. Bizitza erabilgarria amaitu denean soilik baztertu produktuak.
- ✓ Egin aldian behin produktu kimikoen inbentarioak, oso lagungarria da jakiteko produktuaren zer kantitate dugun erabilgarri eta produktu berrien zer behar dugun, baita eroste data eta iraungitze data ere.
- ✓ Zentralizatu produktu kimikoen erosketa substantzien erosketa erredundantea saihesteko eta kostuak merkatzeko.
- ✓ Partekatu produktu kimikoak beste laborategi batzuekin, batez ere produktu bat oso aldian behin erabiliko denean.
- ✓ Erabili produktu kopuru zuzena eta beharrezkoa; arras murriztuko da sortutako hondakinen kopurua.
- ✓ Baloratu produktu kimikoen ontzi hutsak berrerabiltzeko aukera –hondakinak biltegitatzeko–, betiere segurtasun baldintza minimoak betetzen badira.
- ✓ Berrikusi erabiltzen dituzun disoluzioen eta produktu kimikoen etiketak, etiketan alderdiren bat ez adierazteak produktu kimiko hori zuzenean hondakin arriskutsu bihur dezan saihesteko.
- ✓ Berrerabili praktikan sortutako hondakinak, beste esperimentu batzuk egin ahal izateko. Kontuan izan hondakinen minimizazioa laborategietarako tresneria eta lanabesak eskuratzean. Aintzat hartu mantentzeko eta garbitzeko beharrak, tresneriaren bizitza erabilgarria luzatzeko, baita kudeaketarekin lotzen diren kostuak ere.